

hospitalidad.es/caminosdehospitalidad/eus #caminosdehospitalidad

Itxaropena bidea da

Migratzera behartuak izan diren pertsonekin batera BIDEA EGITEN DUGU, haiekin batera itxaropenezko etorkizuna eraikitzearren. Gobernuko erakundeetako ordezkariari 10 eskari egiten dizkiegu, giza eskubideak betetzea bermatzeko eta harrerako eta inklusioko gizarteak sustatzeko.

01 Bizitza, duintasuna eta segurtasuna babesteko beharrezkoa bada, beste herrialde batean nazioarteko babesa eskatzeko eta jasotzeko eskubidea **BERMATZEA**, kausa eta eragile anitzen ulermena zabalduz, eta mugak kanpora ateratzea **UKATZEA**.

02 Ez itzultzeko printzipioa erabat **ERRESPETATZEA** eta lurreko muga guztietan eta barneratze-puntuetan babeslekua eskuratzea bermatzea (adibidez, aireportuetan). **AMAIERA EMATEA** derrigorrezko migratzaileen eta errefuxiatuen atxiloketa arbitrarioari, haurrak barne, komunitatean eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako ordezeko aukerak sustatuz.

03 Migrazio- eta asilo-politikak goitik behera aldatzea **ESKATZEA**, giza eskubideen eta babesaren ikuspegia onartuz eta ikuspegi sekuristaren nagusitasuna baztertuz, eta pertsonen gizarte aniztetasun batzen eta integratzen lagunduko dieten politikak **SUSTATZEA**.

04 Sartzeko eta egoteko bide seguruak eta legezkoak **EZARTZEA** eta birkokatze prozesuak, bisatu humanitarioak eta familia berriz elkartzeko prozesuak **BULTZATZEA**.

05 Derrigorrezko migratzaile guztiei beren eskubideak eta duintasuna **BERMATZEA**, migrazio-nortasuna eta -estatusa aitortzen duten legezko dokumentuak eskuratuta, eta kriminalizazioa **BAZTERTZEA**, justizia eta legezko prozesu egokia eskuratzeko aukera bermatuz behartutako migratzaile, errefuxiatu eta lekualdatutako guztiei.

06 Migratzaileen osasun fisikoa eta emozionala **ZAINTZEA**, indarkeriatik, diskriminaziotik eta jazarpenetik babestuz, eta lan-baldintza bidezkoak eta duinak **ZIURTATZEA**, migrazio-estatusak baldintzatu gabe.

07 Gure gizarteetan aniztasun kulturala errespetatzea eta baloratzea **SUSTATZEA**; horretarako, inklusioa, kulturen arteko bizikidetzeta, tokiko komunitateen konpromisoa, herritartasun globala eta abegikortasunaren kultura bultzatzea, adiskidetzeko helburuarekin.

08 Mugak zeharkatzen dituzten pertsonen **BIZITZAK SALBATZEA**, eta giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen lan ausarta eta funtsezkoa **BABESTEA**, mundu osoan behartutako migratzaileen, lekualdatutako eta errefuxiatuen eskubideak babesten aritzeagatik.

09 Derrigorrezko joan-etorriak eragiten dituzten arrazoiak **LANTZEA**, batez ere herrialdeen arteko akordioen eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren bidez, migrazio oro erabaki aske baten ondorio izan dadin.

10 Giza mugikortasunaren fenomeno osoa osorik **JORRATZEA**, migratzaileen funtsezko eskubideak erdigunean jarriz eta ikuspegi intersektionala kontuan hartuz; ikuspegi horrek azaltzen ditu lekualdatutako pertsonen jasaten dituzten diskriminazio ugariak, haien generoa, etnia eta klase soziala edo klima-aldaketa, desberdintasun ekonomikoa edo indarkeria armatua bezalako testuinguru eragileak direla-eta.